

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure baliabide fisikoak makinak eta honen betegarriak dira. Hau da graduazio desberdinetako eguzkitako krema eta betetzeko potoak.

Baliabide intelektualei dagokionez sare sozialetako profilak eta web orria egiteko ezagutza behar dugu, baita makina diseinatzeko beharrezko mekanika ezagutzak. Lehenengo zatia profesional batzuen iritziekin moldatuko gara, baita marketing zatiaz ere. Aldiz, gure mekanika jakintza nulua denez mekaniko eta diseinatzaile baten aholkua beharko genuke.

Giza baliabidetaz hitzegiterakoan mekanikoak eta administratzaileak beharko ditugu. Makinen mantenimendua egingo duten mekanikoak ezinbestekoak dira. Edozein ezusteko ahal den azkarren konpontzeko ahal direnak eta makinaren inspektzioa egin dezaketenak. Gainera, hasieran gutxienez, finantza administrazioa egin dezaketen espezialistak beharko ditugu.

Finantza baliabideak kredituetan eta eskudiruan oinarritzen da. Hauen jatorria sakonki azaltzen dugu diru-iturriak atalean.